

# Debabarreanean barrena bidaia

Angel Maria Tobajas







**ELGOIBAR**  
**BHI**

**2025-2026 ikasturterako DBHko aurrematrikula  
otsailaren 3tik otsailaren 14ra *Zatoz!***





Argitaratzailea:



Babeslea: Laguntzaileak:



Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.  
20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - 📞 688 655 658

Publizitatea: ☎ 943 743 704 - 📞 688 769 657

[barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)

[www.barren.eus](http://www.barren.eus)

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzirika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Izaro Etxegibel, Jose Ramon Cabrera, Ane Kortaberria, Asier Guisasola, Maialen Sanchez, Lere Kerexeta, Nagore Cancio, Saioa Rodriguez **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.700 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 **ISSN** 1138-1855.



[facebook.com/barrenaldizkaria](https://facebook.com/barrenaldizkaria)



[x.com/barreneus](https://x.com/barreneus)



[instagram.com/barrenaldizkaria](https://instagram.com/barrenaldizkaria)



[youtube.com/@Elgoibarrennet](https://youtube.com/@Elgoibarrennet)



[mastodon.us/@barren@tkm.eus](https://mastodon.us/@barren@tkm.eus)

Maialen Sanchez

Idazlea

## Bizitza bidaia bat da, ez geltoki bat



*"Azken idatzi honetan, eta metafora moduan, 'gero arte' esaten dizuet"*

**D**uela denbora bat, nire idatzien bidez jende gehiagorengana iristeko aukera eman zidaten; ez zegoen arau zorrotzik, ez jarraitu beharreko egiturarik, eta ezta gai taburik ere; nire auzotarrak harrutuko zituen nire zati bat erakusteko unea zen. Niretzat erantzukizun handia izan da idatzi bakoitzean kalitatezko zerbait eskaintzea. Zuengan jakin-mina sortzea eta gaiak zuen interesekoak izatea bilatzen nuen. Maitasun adierazpen asko jaso ditut, eta bilatu ez dudan errekonozimendua jasotzea zoragarria izan da.

Beste bide batzuk aurkitzeko garaia iritsi zait. Hau da, mundu honek eskaintzen digun guztia ezagutzeko irrika ase dezaketen ideia berriei lekua egiteko unea. Nire egin dudan esaldi bat irakurri nuen duela egun batzuk: "Bizitza bidaia bat da, ez geltoki bat. Paisaiak inspiratzen ez bazaitu, jarraitu bidaiatzen".

Azken idatzi honetan, eta metafora moduan, 'gero arte' esaten dizuet:

"Unibertsoa etengabe hedatzen ari den bezala, gure bizitzak ere eboluzionatzen ari dira. Agur hau ortzimuga berri bat da, kosmos berriak esploratzeko gonbidapena. Nahiz eta jada ezin izango dituzuen nire istorioak irakurri hedabide honetan, nire idatzeko eta ikasteko gogoaz hazten joango da, hedatzen ari den galaxia bat bezala, kontatzeko zerbait berria izateko. Kometak behin eta berriz itzultzen diren bezala, agian, etorkizunean gure bideek berriro topatuko dute elkar. Ordura arte, izarrez eta abenturaz betetako bidaia opa dizuet". Laster arte!



### Iragana etorkizunari begira

Aparteko eguraldiarekin ekin genion otsailaren 4an aurtengo santaeskeari. 22 lagun bildu ginen 14:30ean Kalegoen plazan, eta, bi taldetan banatu ondoren, gaueko 21:30ak arte jardun genuen kantuan eta eskean Sallobente, Urruzuno eta Aiastiako 36 baserri-etxetan.

Baserri-atariak, baserritarrak eta kaletarrak bat eginda, ehunka koplak, trikiti hotsa, irribarreak, malloak, emozioak, zirikadak, besarkadak, jan-edanak, limosna, datorren urtera arteko agurrak,... Santa Ageda bezpera osatzen duten piezaK dira.

Talde batek Aldazelain eman zion amaiera egunari, eta Izarpen besteak, afari eta lagun-giro paregabean. Eskerrik asko, bi etxeetakoei, afariarengatik.

Berezia da Santa Ageda eskea Elgoibarren. Ez dakigu usadio zaharrari hainbeste ematen dion beste herririk egongo den Euskal Herrian. Etxegina taldeak 100 urteko historia bete du aurten zorianak, benetan, historia horretako parte (izan) zareten guztioi, eta etorkizunaren ateak ere za-

bal-zabalik ikusten ditugu herriko ikastetxeek eta Atxutxiamaikaren Santa Ageda taldeak egiten duten lanari esker.

Guk ere gure aletxoak jarri dugu azken 31 urteetan, eta, baserritarrek nahi badute, aurrerantzean ere baserri-atarietan bat egingo dugu haiekin otsailaren 4an.

### Elgoibarko Izarrako Santa Ageda taldea

#### 100 urte!

Eskerrik asko, Elgoibar! Hau da Etxegina Taldean esateko daukagun aurrenekoa, azken egun hauetan bizi izan duguna azaltzeko. Ikaragarria izan da.

Elgoibartarrok erakutsi diguzuen maitasuna zaila da hitzetan adierazten. Benetan maitatuak sentitu gara, hasi erakusketaren aurreko ostiraleko irekiera ekitaldian, baina baita egunero erakusketak ikustera pasatzen ari zareten lagun guztien hitzetan eta aipatutako kontuetan, eta jarraituz otsailak 1ean izan ziren ekitaldi ezberdinetan.

Aurten urte berezia izanik, pertsona asko eta asko izan zireten gurekin kalean koplari, eta horrek indarrez betetzen gaitu aurrera jarraitzeko, erreleboa ziurtatuta dagoelako. Irekieran aipatu genuen bezala, Germanek bazeukan kezka 1974. urtean Joxemari Iriondok egin zion elkarrizketan taldeak izango zuen etorkizunari buruz, eta kezka berdina azaldu zuen bere seme Ramonek 1997an BARRENEAN bertan egin zioten elkarrizketan... 51 urte pasatu dira Germani egin zioten elkarrizketa hartatik, eta indartsu gaude zuei guztioi esker.

Eskerrak bereziki 100. urteurreneko ekitaldiak posible egiten ari zareten erakunde eta enpresei. Hasi Elgoibarko Udaletik, eta segi Mugape, Danobat S. Coop., Alcorta Forging Group, Berkoa eta Etxepe enpresekin. Mila esker denoi.

Baina, eskerrik asko berezienak elgoibartarroi. Zuen babes eta indar guztiak aurrera egitera animatzen gaitu. Egun hauetan bizitzen ari garen emozio guzti hauek indarrak biderkatu dizkigute aurrera jarraitzeko. Taldea indartsu dago zuei esker.

Bukatzeko, gogoratu nahi dizuet igandera arte irekita dagoela erakusketak, eta hor elkar ikusteko aukera izango dugula. Gainera, badakizue jasotako guzti hau gal ez dadin webgune bat ere osatzen ari garela (*etxeginataldea.eus*), eta hor jasoko dugula gure eskura daukagun informazioa zuen guztion eskura jartzeko. Eskerrik asko, bihotzez, Elgoibar!

Etxegina taldea

EXPRESS ESKAINTZAK!

BEKO BM1WFT3922W  
ARROPA GARBIGAILUA

A  
T  
G

B



349 €

- 9 kg karga
- 1200 b/min
- Water mode: ur-kontsumoa %10eraino murrizten du.

M MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - [bire@milar.es](mailto:bire@milar.es)

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte





Zuen kexak, galderak edo txalok bidaltzeko: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)



943 744 112



688 655 658



### Altzolako radar pedagogikoak bere funtzioa betetzen du:

"Elgoibarko Udalak bi radar pedagogiko jarri berri ditu Altzolan gidariak ohartarazteko, eta egia esanda, bere funtzioa ondo betetzen dute. Abiadura murriztea lortu da, eta horri esker gune seguruagoa bilakatu da inguru hori".



### Elgoibarko Udalak tasarik kobratzen al du Kalegoen plazako aldamaioengatik?:

"2019tik hona ohiko bilakatu zaizkigu Kalegoen plazako eraikina eusteko beharrezkoak diren egiturak. Elgoibartarrok herriko gune esanguratsu horren beharra daukagu eta ez dirudi epe motzera berreskuratuko dugunik. Espazio publiko honen okupazioa dela eta, Udalak diru-sarrerarik duen jakin nahiko nuke. Eraikin bateko obrak egiterakoan aldamaioak jartzeagatik tasak ordaintzen dira, eta Udalak kobratzen dituen jakin nahi nuke. Baiezkoa balitz, urtero zenbatekoa den zehaztea eskertuko nuke, eta ezezkoa bada, arrazoiak ematea". Hirigintza Sailera jo dugu eta ondorengo erantzuna jaso dugu: "Kalegoen 4 eta San Bartolome 3 eraikinen se-

gurtasuna bermatzeko ipini behar izan ziren es-tabilizadoreei eta apuntalamenduei buruz esan, espazio publikoaren okupazioagaitik ordaindu beharreko tasetatik haratago doan gaia dela. Gaia judizializatuta dago eta orain epaiketaren zain gaude. Epaia ostean jakingo da egin behar izan diren lanen kostu osoa eta gastuen erantzukizuna zeinena den. Esan baita ere, ezbeharrak gertatu zenetik, Udalaren helburua herritarren segurtasuna eta bizilagunen babesa bermatzea izan dela eta egindako ekintza guztiak bide hor-tatik joan direla. Denok espero dugu laster El-goibarko Plazak bere itxura berreskuratzea eta batez ere, kaltetutako bizilagunek beraien eska-kizunak lortzea. Udalak jarraituko du bizilagunei babes hau ematen".



### IMHko ikasle ohientzako atea irekitzeko eguna

1991/92 eta 2000/01 ikasturteen artean IMHn ikasi bazenuen, animatu, OTSAILAREN 22an 11:00etan, egingo dugun atea irekitzeko ekitaldira!



Izena emateko

[www.imh.eus](http://www.imh.eus)



LANBIDE HEZIKETA ELGOIBAR



### MEKako ikasle ohientzako atea irekitzeko eguna

MEKA-n ikasi baduzu edo herritar bezala ikastetxea ezagutu nahi baduzu, animatu, OTSAILAREN 22an 11:00etan egingo dugun atea irekitzeko ekitaldira!



[www.meka.eus](http://www.meka.eus)

Izena emateko



## Aurtengo Trinitate jaietan sokamuturra egongo da



**E**lgoibarko Udalak sokamuturraren tradizioari eutsi nahi dio, eta aurreratu du 2025eko Trinitate jaietarako sokamuturra antolatu dutela. Ekainaren 15ean izango da, 08:00etan. Iaz San Bartolome jaietako hiru sokamuturrez gain, Errosario kaleko jaietarako ere antolatu zuten laugarrena, eta aurtien ere bide beretik segitzea zen asmoa, baina Kilometroak jaiak Errosario kaleko jaiekin bat egingo duenez urriaren 5ean, Trinitateetan egingo da urteko lehenengo sokamuturra.

Ez da hori berrikuntza bakarra izango. 2025ean sokamuturrik onena zein den eraba-

kitzeko lehiaketa egingo dute. Iaz, Udal barnean osatutako batzorde baten ustez, Saka ganadutegiak egindako sokamuturra izan zen onena zezenen kalitateagatik, sokaren erabileragatik eta soka-lagunen trebetasunagatik. Hori dela-eta, Sakak ziurtatuta dauka aurtengo sokamutur ekitaldi batean partehartzea. Gainerako ganadutegiak izena eman beharko dute parte hartzeko eta ezinbestekoa izango da Euskal Zezenzale Elkartearen (EZE) erregistratuta egotea. Interesa duten ganadutegiak Elgoibarko Udaleko Kultura Sailera jo beharko dute (943 742 158).

### Herritar ugarik bedeinkatu dituzte San Blas opilak



Otsailaren 3an, San Blas egunez, opilak bedeinkatzeko meza bereziak egin zituzten Elgoibarren eta Mendaron. Koldo Lizarraldearen *Festa Herrikoiak Elgoibarren* liburuan jasota dagoenez, XX. mende hasieran gatza, San Blas opilak eta lokarriak bedeinkatzen zituzte; hori guztiori, familian eztarriko minik ez izateko. Tradizioaren arabera, zortzi egunez jantzi behar da lokarria lepoan, eta bederazigarrenean sutara bota. Egun ere jende askok eusten dio usadioari, eta asteleheneko ospakizunetan jendetza bildu zen. Elgoibarkoa da argazkia.

## Santa Ana kaleko aparkalekua berritu dute

Elgoibarko Udalak Santa Ana kale amaieran dagoen aparkalekua berritu du. Lurzoruko asfaltoa berritu eta autoen aparkalekuen kokapena egokitu du. 44 autorentzako lekua dago orain, eta horietako bi mugikortasun murriztua dutenentzako dira. Farola berriak ere jarri dituzte, eta horri esker inguru horretako argiztapena hobetu da. Horrez gain, espaloia egin dute aparkaleku bazterrean, belargune baten bidez errepidetik bereizten dena. Modu horretan, oinezkoentzako segurtasuna handitu nahi izan dute, lehen autoen bidetik joan behar izaten zu-



telako oinezkoek tarte horretan. Orain espaloia dago Maltzagako bidegorrira edo Sigmako industrialdera joateko.

## Elgoibarko Jubilatuen Biltokiak ekintzak antolatu ditu otsailerako

Elgoibarko Jubilatuen Biltokiak otsailerako antolatu dituzten ekintzen berri eman du: Otsailaren 20an Azkoititik Zumarragara egingo dute ibilaldia. 09:00etan hartuko dute autobusa Azkoitira, eta handik oinez egingo dute Zumarragara arteko bidea. Hamarretakoa eta bazkaria bakoitzak berea eraman beharko ditu. Otsailaren 26 eta 27an, berriz, erorketak sahiesteko tailerra egingo dute Jubilatuen Biltokian. Osakidetzako, Betioneko eta Itziar Sarasketa ortopediako langileek emango dute ikas-

taroa, eta besteak beste ondorengo gaiak landuko dituzte: erorketetan eragina duten faktoreak, muskuluak indartzeko ariketak, adinekoentzako gizarte baliabideak, Betion telelaguntza-zerbitzua eta ortopediako materiala. Tailer honetan parte hartzeko izena eman behar da. Otsailaren 10ean zabalduko dute izena emateko epea, eta hilaren 24a izango da azken eguna. Epe horretan, astelehen eta barikuetan eman beharko da izena, 11:00etatik 12:00etara bitartean, Jubilatuen Biltokiko bulegoan.

## Herriko Enparantzako pantaila kendu dute, lekuz aldatzeko



Mendaroko oharren eta agendaren berri emateko 2019an Herriko Enparantzaren jarri zuen pantaila kendu zuen joan zen astean Mendaroko Udalak, beste leku batean jartzeko. Herriko Enparantzako kantoian, frontoiko atzeko parete-  
tik gertu, zegoen pantaila, baina pareko etxeei



begira, eta ez zeuden gustura bizilagun guztiak, pantailaren argitasunak kalte egiten zielako. Haren lekuan, Kilimon bailaran markatu dituzten bi PR edo Ibilbide Laburrei buruzko informazio-taula jarri zuten martitzenean. Pantaila, berriz, udal-  
txeko eraikinean jartzea aztertzen ari dira.



## Sigmako aparkalekuko zutabeak apaindu dituzte

Udaleko Kultura Sailak 7.000 euro bideratu zituen 2024an herriko kultur eta arte sorkuntza laguntzeko. Azaldu zutenenez, herriko bizitza kulturala aberasteko sormen prozesuak garatzeko proiektuak sustatzea zuten helburu. Hiru proposamen aurkeztu ziren, eta horietako bat izan zen Egur Arte tailerrak aurkeztu zuena. Sigmako aparkalekuan dauden 17 zutabeak marrazkiekin dotoretzea proposatu zuten, eta 5.400 euroko laguntza jaso zuten ideia gauzatzeko.

Asier Etxaniz eta Ibon Serrano izan ziren laguntzak jaso zituzten beste bi sortzaileak. Etxanizek 1.000 euroko diru-laguntza jaso zuen, Txoteko Ezpata musika taldearen Ilunpean jai duzu CDa argitaratzeko. Serranok, berriz, 600



euro jaso zituen, Mugertza krosari buruzko margolan bat sortzeko.

## Espazio berri bat zabaldua, anbulatorio-ahalmena handitu dute Mendaroko ospitalean

Ospitaleraterik eskatzen ez duten tratamendu mediko programatuak behar dituzten pazienteentzako gela berri bat du Mendaroko Ospitaleak urtarrilaren 20az geroztik. Bi erizain eta bi laguntzaileko talde profesionala arituko da bertan lanean, eta zer-

bitzuak ahalbidetuko du ospitaleetako anbulatorio-ahalmenaren %50 handitzea, besteak beste, injekzio/infusio, odoluste terapeutiko edo transfusioetako tratamenduetan. 08:00etatik 21:00ak arteko zerbitzua emanango dute han.

## Martxan daude Altzolako radar pedagogikoak

Altzola auzorako bi sarbideetan ipini dituzte radar pedagogikoak, bat Bilborako norabidean eta bestea Donostiarakoan. 300 metrora arte dauden ibilgailuak detektatzen dituzten irismen luzeko antenak dituzte, eta LED pantailak, partetik igarotzen diren gidariei euren abiaduraren berri emateko, mezu pertsonalizatuak erakustearekin batera. Gailu horiek gehiegizko abiaduraz ohartarazteaz gain, kolore sistema baten bidez (berdea, anbarra eta gorria), trafiko estatistikak ere biltzen dituzte. Eguzki-energia erabilia funtzionatzen dute bi radarrek, eta biengatik 4.803,70 euro (BEZa barne) ordaindu du Udalak. "Neurri horren bidez, gidariak kontzientziatu nahi dira abiadura-mugak errespetatzaren garrantziaz, batez ere auzoa alde bate-



tik bestera gurutzatzen duten oinezkoak ibiltzen diren tarte batean", azaldu dute Udaletik.

# EZTARRIZ SANO

✍ Ainhoa Andonegi 📷 Asier Orbea / Ainara Argoitia / Ainhoa Andonegi / AtxutxiamaiKa

Santa Agedaren omenezko koplak entzun dira asteen Elgoibarren zein Mendaron, eta eztaRRiz sano daudela erakutsi dute guztiek. Etxegina taldekoak izan ziren kopia kantuan hasten lehenengoak zapatuan. 100 urte bete ditu taldeak, eta mendeurrena ospatzeko ekitaldia izan zuten udaletxean. Domekan, AtxutxiamaiKa-koak irten ziren familian, eta Azkue auzoko baserrietan aritu ziren kopia kantuan, etxeko txikienei aspaldiko ohitura hau transmititzeko. Martitzenean, Santa Ageda bezperan Elgoibar Ikastolako eta Mendaroko eskola-umeak irten ziren kalera goizez, eta arratsaldean, Elgoibarko Izarrakoak ibili ziren Aiastia eta Sallobente-Urruzunoko baserrietan. Argazki gehiago eta bideoak ikusteko: [barren.eus](http://barren.eus)

## ETXEGINA







ATXUTXIAMAIIKA





ELGOIBAR IKASTOLA







## MENDARO IKASTOLA





ELGOIBARKO IZARRA





# BIDAIA GEOLOGIKO, HISTORIKO ETA PAISAJISTIKOA DEBABARRENEAN

✍️ Ainara Argoitia

📍 Leizarpe Espeleologia taldea / Ion Urbietta



*Tobajas Kilimoi erreka Ebroko zuloan.*

**'Paisajes y parajes singulares del Bajo Deba' liburuaren argitaratu du Angel Maria Tobajasek, Morkaiko Leizarpe Espeleologia taldekoek 53 urteko landa-lanean bildutako informazioarekin. Debabarreneko ondare geologiko, historiko eta paisajistikoa ezagutarazteko bidaia da liburuan proposatzen diguna, bailarako geodibertsitateari lotutako ondare guzti horrek "bakarra eta parekorik gabekoa" egiten duelako Debabarrena. Zientzia dibulgaziorako idatzi du liburuaren, orain arteko gainerako guztiak bezala, baina azalpen didaktikoez gain, kexa eta aldarrikapenari ere egin dio lekua, iruditzen zaiolako, askotan, natura zaintzeko gutxienezko parametroak errespetatu gabe esku hartu dela gure paisaian. 'Leizarpe.blogspot.com' helbidean deskargatu daiteke liburuaren.**

**G**eologiaren arabera da neurri handi batean paisaia, eta Debabarreneko geologia "askotarikoa eta berezia" da. Eskualde honetan bat egiten dute "bakarra eta parekorik gabekoa" bihurtzen duten hainbat faktore geologikok, eta balio horren parte bat aitortua du Euskal Kostaldeko Geoparkeak. Deba, Mutriku eta Zumaiako udalerriek osatzen dute Geoparkea eta Flyscharen ibilbidea eta Karstaren ibilbidea proiektuak garatzera deituak daude, baina Tobajasen iritzirako, Geoparke honek ez du islatzen eta, are gutxiago aintzat hartzen, Debabarrenak duen aberastasuna eta konplexutasuna. Dio buru neke handirik hartu beharrik gabe beste lau ibilbide ere proposatu ahal izango lituzketela beren taldekoek Geoparkean sartutako udalerrietarako:

Paleolitoko Ibilbidea, Ibilbide Espeologikoa, Lurpeko Uren Ibilbidea edo Iparraldeko Done Jakue Bidearen Ibilbidea, eta sinistuta daude Geoparkearen domeinua Debabarrena osora zabaldu beharko litzatekeela.

Hori arrazoitzera dator liburuaren. "Eibartik Debara arteko hamabi kilometroko bidean gutxienez lau paisaia berezi ditugu: Eibarko Flyscha, Maltzagatik Elgoibarrerako paisaia bolkanikoa, Elgoibarko paisaia sedimentarioa, eta Mendaro eta Deba arteko paisaia karstikoa, eta guzti horietatik, paisaia karstikoa da, beharbada, denetan ezezagunena, ikusteko zailena delako". Eibar-Deba artean ezagutu beharreko guztia-aren inguruko jakingarriak bildu ditu Tobajasek liburuan, eta 96 plano eta 400 argazki baino gehiagorekin lagunduta eman ditu, "modu didaktikoan". "Helburu nagusia gure eskualdearen balio paisajistikoa aparta ezagutaraztea da, eta, espeleologo gisa, bereziki gure paisaia karstikoa ezagutaraztea, 50 urteko eskarmentuak erakutsi digulako oso kaltebera dela. Paradoxikoki, kos-

*"Eibartik Debara arteko gutxienez lau paisaia berezi ditugu: Eibarko Flyscha, Maltzagako paisaia bolkanikoa, Elgoibarko paisaia sedimentarioa eta paisaia karstikoa, Mendaron"*

taldetik hurbilen dauden Debabarreneko lau herritako herritarrek eta kanpotik datozen turista guztiek karstekoa lurpeko ura behar dute bizitzeko, baina oraindik ere etengabe gogoratu behar dugu bertan garatzen ari diren jarduera batzuk erabat jasanezinak direla gure akuiferoak eta ondare geologiko, paisajistiko, arkeologiko, historiko eta beste asko kontserbatzeko", dio. Haren iritziz, karstaren eta, batez ere, lurpeko karstaren ikusezintasunak laguntzen du hura degradatzen, eta horretan espeleologoek ere lagundu duten ustea du. "Lurpeko marabilak ezagutzera eman beharrean, ezkutatzera egin dugu, kontserbatzeko modurik onena izango zela pentsatuta, eta akats larria izan da. Ezagutzen ez dena ezin dela errespetatu dioen axioma berresten du horrek".

326 orrialdetako liburuan bildutako dena hona ekartzea ezinezkoa da, baina "marabilen" aukeraketa bat egin dugu, bere laguntzarekin.

## EIBARKO FLYSCHA

Zalantzarik gabe Iberiar penintsulako eta nazioarteko flyschik ezagunena Euskal Kostaldeko Geoparkekoa da, Deba eta Zumaia artekoa, baina Eibarren ere badugu flyscha, Eibarko saihebsidea egiteko obrek azaleratu zutena. Kretazeoaren eta Tertiarioaren arteko muga (K-T muga) eta Paleozenoaren eta Eozenoaren artekoa (P-E muga) argi ikus daitezke gure kostaldeko flyschan, baina Deba eta Zumaia artekoan bezala, Eibarko flyscheko harkaitz-geruzetan ere historia geologikoaren milioika urte irakur daitezke. Itsas azpian poliki-poliki metatzen joan ziren sedimentuek osatu zituzten konposizio ezberdineko geruza horiek, eta beraz, ez da harritzekoa Eibarko flyschan ere itsas fosil ugari topatu izana. Ugarienak, *inoceramusen* fosilak dira. Bi kuskuko maskorra zuten moluskuak ziren *inoceramusak* eta Goi Kretazeoan galdu ziren. Hala ere, ugariagoak dira geruza horietan garai hartan itsas hondoa bizi izan ziren organismoen presentzia adierazten duten aztarnak, narrasti-pistak-eta. Topatu dituzte, era berean, itsas hondoa bizi ziren zizareek zulaturako tunnel-sareak ere. Bada ezberdintasun nabarmen bat gure bi flyschon artean, baina, Tobajasen esanetan: "Kostaldekoka etengabe garbitzen da olatuekin, baina Eibarkoa lausotzen ari da landa-

*"Liburu honen helburu nagusia gure eskualdearen balio paisajistiko aparta ezagutaraztea da, eta espeleologo gisa, bereziki gure paisaia karstikoa ezagutaraztea, 50 urteko eskarmentuak erakutsi digulako oso kaltebera dela"*

redia hazten ari delako. Beraz, iraungitze-data duen flyscha da Eibarkoa".

## MALTZAGAKO PAISAIA BOLKANIKOA



*Paisaia bolkanikoa.*

Debabarreneko paisaia bolkanikoak garrantzia berezia du Eibar eta Elgoibar artean, batez ere Maltzagatik Elgoibarko hilerri pareraino doan ibaiaren zatian. "Ibilbide horretan topa ditzakegun haitz bolkanikoei basalto esaten zaie generikoan, baina haien itxurari erreparatuz gero, askotarikoak daude: arroka igneoa edo magmatikoak, plutonikoak, piroklastikoak, basikoak, filoniarak...". Debabarreneko bolkanismoak dozenaka milioi urteko aldia hartzen du bere baitan, duela 100 eta 80 milioi urte bitartekoa. "Debabarreneko sektore bolkanikoaren aberastasun geologikoak mereziko luke haren ikerketarako zentro bat sortzea inguru honetan, baina gutxienez informazio-panel batzuk jarri beharko lituzkete bidegorrian, daukagun horren berri emateko".





*Erreketa ibaiaren iturburu ezkerrean. Eskuinean, Talaixako meategiko kolada mineralizatua.*



Ikasi gabekoon begiak ikusteko moduko gauzak ere badira: Deba ibaiak perfil malkartsua dauka inguru horretan, basaltoa edo arroka igneo bolkanikoa askoz zailagoa delako higitzeko inguruko harri sedimentarioak baino, eta ondorioz, ibaian ur azkarrak eta saltoak sortzen dira, erabili direnak argindarra sortzeko. "Kilometro barruan hiru zentral hidroelektriko daude. Errekorra! Animatuko zintuzketet marka hori hobetzen duen beste adibide bat topatzera!". Beste bitxikeria bat ere jaso du. Basaltoa ustiatzeko Sigmatik gertu sortu zuten harrobiaren aztarnak ere agerikoak dira oraindik, eta basaltozkoa da Elgoibarren idi-pobretan erabiltzen duten *Harri Beltza* ere; baita Elgoibarko herriguneko harrizko zoladura ere.

### **ERREKETAKO KARSTA, ELGOIBARREN**

"Erreketa bloke karstikoak minikarst berezi bat osatzen du, Aizti errekaaren amildegia barruan, Erreketa eta Berasaluze baserrien artean, eta hain da adibide karstiko berezia, geologia-intereseko puntu deklaratu zitekeela". Hedadura txikia izan arren, erreketako karstean hainbat barrunbe daude, guztira kilometro erdiko galeriak osatzen dituztenak, bai eta 50 metro inguruko sakonera duen leize bat ere. Horri gehitu behar diogu: lenar estali bat Borragen baserri inguruan; azaleko hiru erreka karstiko, horietako bik iragazkietatik zirkulaziorik ez duten tarte zabalak dituztenak; hiru iturburu, bat hasierakoa eta bi amaierakoa; eta hiru hustubide, gutxi gorabehera aurkitzeko modukoak, euri-jasaren arabera aldaketak jasaten baitituzte. Aparteko kapitulu bat merezi du. Elgoibarren, Erreketa iturburu urarekin hasi ziren hornitzen etxeak, 1915ean. Aldi berean, iturburu leku altuan dagoenez, zentral elektriko bat ere

egin zuten San Pedrorako errepidean, argindarrez hornitzeko herria. "Orain, Kilimoiko lurpeko ura edaten dugu, baina Mendarotik ura ekarri aurretik Erreketa ura edaten genuen".

### **ELGOIBARKO PAISAJE SEDIMENTARIOA ETA HISTORIAURREKO AZTARNAK**

Elgoibarren, bereziki bi kontu nabarmenduko lituzke Tobajasek: Batetik, Maltzagako paisaia bolkanikoaren eta Mendarotik aurrerako paisaia karstikoaren artean Elgoibarko paisaia sedimentarioak sortzen duen kontrastea eta paisaia horren barruan sortzen diren kareharrizko azaleratzeak eta azaleratze bolkanikoak. Eta bestetik, ondare arkeologikoa. Hor dauzkagu Karakaten, Maltzagara begirako hegalean, 2016an topatu zuten erromatarren garairako kanpalekuaren aztarnak edota Karakateko trikuharri eta dolmenen ibilbidea. "Karakate, bere 800 metroekin, talaia ikaragarria izan da beti eta horrek gizakiaren arreta bereganatu du antzina-antzinetik. Ez da kasualitatea erromatarrek kanpaleku bat eraiki izana han, historikoki Donostiatik, Gasteiztik eta Bilbotik datozen komunikazio-bide guztiek bat egin dutelako Maltzagan, eta beraz, ezin egokiagoa zelako kontrol-postu bat kokatzea bailararako hain estrategikoa den bidegurutze baten gainean".

*"Debabarreneko sektore bolkanikoaren aberastasun geologikoak mereziko luke haren ikerketarako zentro bat sortzea Elgoibarren, edo gutxienez informazio-panel batzuk jartzea bidegorrian zehar"*



*Aizkoltxo 3-ko galeria handia ezkerrean. Eskuinean, kobazulo bereko espeleotema ikusgarriak.*

Ibaiaz beste aldera dago Moru mendia. 1991n burdin aroko herrixka baten aztarnak aurkitu zituzten bere altzo zabalean. Indusketa orokor baten faltan, egindako zundaketek egiaztatu zuten Burdin Aroko herrixka gotortu bat izan zela han K.a. lehen milurtekoaren erdialdera. "Ez da aztarnarik aurkitu Karakateko gailurreko erromatar kanpamenduarekin lotzeko; agian, harreman hori hurbileko Garatamendi muinoan bilatu beharko da", zehaztu du.

Talaixako meatzeak ere merezi du aipamen berezi bat, Tobajasen esanetan. Informazio bati jarraikita, 1975ean topatu zuten Morkaiko espeleologia taldekoek, Talaixako amildegian gora eginda (Mortzeria izenez ere ezagutzen da). Talaixa baserriaren azpiko aldean zulo bat ikusi zuten, landarediaz erdi estalita. Lehenengo azterketa batzuk eginda, kobazulo gisa katalogatu zuten, baina topografiak erakutsi zuen gero zulo artifizial bat zela, gizakiak egindakoa. Hormetan, erromatarren teknikaz egindako argi-zuloak atzeman zituzten. "Argizuloak 20 zentimetroko luzera, 12 zentimetroko altuera eta 10 zentimetroko sakonera zuten horma-hobi angeluzuzenak ziren, eta galeria argizatzen zuten olio-lanparak jartzen zituzten haietan. Zoritxarrez, 1988ko uholdeetan lur-jausi handia gertatu zen Talaixan, eta erabat itxita gelditu zen hara sartzeko atea". Nolanahi ere, uste dute Protohistorian [historiaurrearen eta historiaren arteko trantsizio aldia], Karistiarrek ustiari zutela meategi hori Kalkopirita ateratzeko.

"Erromatarrek mineral bila ibili ziren eta beren komunikazio eta merkataritza bideak babestea izan zuten ardura nagusia. Eta gure inguruan topatu diren aztarnak bide ematen dute pentsatzeko aurkikuntza gehiago egin daitezkeela. Guzti

horren berri eman behar dugu, modu ikusgarriago batean, tokian-tokian kartelak eta behar diren argibide-panelak jarrita".

### **MENDAROKO PAISAIA KARSTIKOA.**

"Mendaroko ondare naturala izugarria da. Kobazuloz josita dago, eta hori oso ehuneko txiki bat dela topatu dena. Mendaroko Suharri elkartekoek sekulako lana egin dute azken urteetan, ehun kobazulotik gora identifikatu dituzte, eta luze gabe hasiko dira lan horren emaitzak azaleratzen, baina agertu dira Paleontologikoko eta historiaurreko aztarnak... Edonola ere, ezagutarazi beharreko guztian, Aizkoltxok aparteko kapitulua behar luke", dio Tobajasek.

Goikola errekarren sakanean dago Aizkoltxo muinoa, Mendaroko Plaza auzoan, 634 errepi-dearen eta Deba ibaiaren artean. Kareharrizko tontorra da, Arnoko karstaren mugarri naturala, Goikola ibaiko urek zulatutakoa. "Aizkoltxo muinoa Debabarreneko lehen mailako elementu geomorfologikoa da, guztiz apartekoa, duela ehunka mila urte Goikolako sakana itxia eta itsua egiten zuelako. Horregatik, urek irteera bat bilatu zuten Aizkoltxo muinoko hustubide batetik eta haitzuloa zulatu zuten". Inguru horretan, Lurpeko ur-sare bat topatu zuten Morkaiko Leizarpekoek. Gehiago ere bada, baina. Deba bailarako talaia izan zen antzinako gizakiarentzat, eta horregatik ere berezia da, ondare arkeologiko ugari bildu dituztelako muinoaren izen bereko kobazuloe-tako batean. Duela 15.000 bat urteko aztarnak dira topatu dituztenak eta piezarik ikusgarriena Goi-Madeleine aldiko [duela 16.500-13.300 urtekoa] lau zulodun makila apaindua da, 2014ko kanpainen topatu zutena.



Bost kobazulo topatu dituzte Aizkoltxon [Batzuk sedimentuz itxita daude, kolmatatuta], eta Mendaron aurkitu duten bosgarren kobazulorik handiena ere han dago [Aizkoltxo 3], eremu urbanoan, eta birjina da. Kobazuloan 300 bat metroan sartu ziren barrura duela lau bat urte Leizarpe espeleologia taldekoak eta hareharrizko errekarri ugari topatu zituzten, baita sabaian ere. Hortik ondorioztatu zuten Goikola erreka kobazuloan sartzen dela. Eta hain justu ere, hareharrizko errekarri berdinak topatu zituzten gero historiaurreko piezak agertu diren kobazuloan ere. Hogei bat metro gorago dago kobazulo hori, Deba ibaira begira, baina bietan errekarri berdinak topatu izanak erakusten du bi kobazuloak barrunbe bera direla. Goiko kobazuloa babestuta dago, aztarna paleontologikoak aurkitu dituztelako bertan, baina behekoak, kobazulo bera denak, ez dauka gaur inolako babesik. Are, oraindik ikertu gabe dagoen beste kobazulo bat ere badago muino berean, lan-tegi baten lurretan.

Baina gauza gehiago ere badaude Mendaron, eta denen artean aipamen berezia merezi du bere ustez Kilimon errekek, eskualdeko lau udalerrri urez hornitzen duenak. "Mendaro Geoparkean sartzeko proiekturako jaso dugu Atxurin sortu nahi dugun *via ferrata* edo burdinezko bidea, eta Arraztoko leizea herritarrei zabaltzeko proposamena". Atxuriko leizea 1973an topatu zuten Morkaikoko espeleologoen (*Pyrenaica*-ren 102. zenbakian argitaratu zuten, 1976. urtean). Goitik beherako leizea da, hiru gela dauzkana, galeria bakarrera iristerako. Arraztoko leizea, berriz, Aranerreka bailaran dago, Lizarrola baserritik aurrera, eta Morkaiko espelologia taldekoek 1992an aurkeztu zioten Mendaroko Udalari Arraztoko leizea bisitagarri egiteko proiektua. "Leizeko bigarren galeria 500 metro luze da eta oinez ibili daiteke barruan, baina hara iristeko tunel bat egin behar da. 1992an esan ziguten 20 milioi pezetako kostua zuela horrek. Nik ez dakit, baina ikusita ditut Frantzian Betharramgo leizeak adibidez, eta han igogailua ere badute, bai eta irteteko 800 metroko tunelean, trena ere. Eta hemen 40 metroko tuneltxo bat egiteko hainbeste komeri! Hemen ez dagoena da ondare horri balioa aitortzeko konpromisorik eta irudimenik. Hemen, industria lehenesten da beste guztiaren gainetik, jabetu gabe daukagun handiena ondare naturala dela, eta ura dela daukagun altxorrik aberatsena".



*Tobajas bera, Atxuriko gainean.*



*Atxuri leizeko ahoa.*



*Atxuriko haitzaren ikuspegia.*

## Iñaki Goitiaren 'De mal en peor' mikroipuina Madrilgo El Prado museoak antolatutako mikroipuinen lehiaketako finalista izan da

**M**adrilgo El Prado museoak estreinakoz antolatu du mikropuinen lehiaketa eta guztira, 2.444 mikropuin lehiatu dira. Bazuen lehiaketa honek bereizgarri bat. Lehiaketara aurkezten ziren lanek El Prado museoaren bildumako bost obretako batean oinarritutakoak izan behar ziren: Francisco Goyaren *Perro semihundido*; Aurelia Navaroren *Una artista*, Matteo Bonuccelliren *Hermafrodito*, Diego Velazquezen *Vista del jardín de la Villa Medici* de Roma, eta Tizianoren *Sisifilo*. Lehiaketara aurkeztu ziren lan guztien artean lehen aukeraketa bat egin zuten Madrilgo Idazleen Eskolako epaimahaikideek eta hogeit finalista apartatu zituzten. Urtarrilaren 29an batu zen gero berriro epaimahaia, horietatik irabazlea, accesitsak eta zazpi finalistak izendatzeko, eta orain jakinarazi dituzte saridunak. Lehiaketa Alberto Morenok (Talavera de la Reina, España) irabazi du, Matteo Bonuccelliren *Hermafrodito* obran oinarritutako *Cris* izenburuko lanarekin.



Beste lau accesit ere izendatu dituzte eta bost lan horiek El Prado museoan jarriko dituzte orain irakurgai. Iñaki Goitiaren *De mal en peor* lana zazpi mikroerrelato finalisten artean dago.

### 'Sólo hasta mañana' antzezlan gaur, Herriko Antzokian

Erre produkzioak taldeak *Sólo hasta mañana* antzezlan taularatuko du gaur, Herriko Antzokian. Harreman irekiei eta sexualitatea

ulertzeko modu berriei buruzko antzezlan da, 14 urtetik gorakoentzat. 19:00etan hasiko da emanaldia.

### San Bartolome jaietako egitaraua osatzeko bilera, otsailaren 13an

Elgoibarko Udalak San Bartolome jaiak antolatzeke bilera antolatu du, ostegunerako. 18:00etan izango da, Aita Agirre kulturguneko Areto Nagusian. Herritarren laguntzarekin osatu nahi dute egitaraua, San Bartolome jaiak "ahalik eta aberatsenak eta erakargarrienak" izan daitezzen. Bilera horretara joango direnek izena eman beharko dute [kultura@elgoibar.eus](mailto:kultura@elgoibar.eus) helbidera idatzita. Helbide elektronikoko hori bera baliatu daiteke proposamenak bidaltzeko. Galdetegi bat ere jarri dute Udalaren webgunean herritarren proposamenak jasotzeko.

### Heriotzaz eta doluaz jardungo da Iñaki Peña medikua, 'Aulki hutsak' dokumentalaren harira

Iñaki Peña medikuak zuzendutako *Aulki hutsak* dokumentala emango dute eguenean Mendaron, eta proiektioaren ostean, heriotzak lagatzen duen hutsuneaz mintzatuko da Peña. Heriotza eta heriotzaren ondorengoa aztertu ditu Peñak dokumentalean, adituen eta hildakoen senideen ikuspegitik. Joandako horien ausentziari nola aurre egin azalduko du, eta dolu prozesuan lagungarri izango diren aholkuak emango ditu. 18:00etan izango da emanaldia, Mendaroko Udaltza aretoan.



## Eduardo Momeñeren argazki erakusketa antolatu du Ongarri argazkilari taldeak

**E**duardo Momeñe (Bilbo, 1952) argazkilariaren erretratuak jarriko dituzte ikusgai Elgoibarko Kultur Etxean, hilaren 14tik 28ra. Lau hamarkadatan zehar ateratako argazkiak izango dira, eta oraingoan aurpegi eta figuretan jarri du arreta argazkilariak. Bakarkako lehen erakusketa Bartzelonako Nikon galerian egin zuen 1974an. Ordutik, bere argazkiak bilduma publiko zein pribatuaren parte dira eta erakusketak egin ditu hainbat herrialdetan. Bere azken erakusketak Madrilgo Arte Ederren Zirkuluan (*Retratos y otras Ficciones* / 2023-2024), Luis Burgos Galerian (PhotoEspaña 2024) eta Palazzo Pasani Revedinen (Veneziako biurtekoa / Abr-May 2024) izan dira. Madrilgo estudioan, besteak beste, *Elle*,



*Marie Claire*, *Vogue* eta *Style* aldizkarietarako lan egin du.

Ongarrik antolatu du erakusketa, Kultura Sailaren laguntzarekin. Astelehenetik zapatara egongo da zabalik, 18:30etik 20:30era.

### Santa eskean irtengo dira bihar Mendaron



Mendaron bihar irtengo dira santa eskean. 08:30ean elkartuko dira Herriko Enparantzan, eta hiru taldetan banatuta koplaturako dituzte herriko kale eta baserriak. Talde bakoitzean bi koplari arituko dira: Aitor Salegi eta Amaia Agirre Azpilgoetan, Unai Mendizabal eta Beñat Lizaso Mendarozabalen eta Iñigo Zubiaurre *Beitxi* eta Aitor Zubikarai, Garagartzan. Trikitilari lanetan, berriz, hauek: Igor Rey, Jon Larrañaga, Amaia Sukia, Iñigo Loliola, Garazi Ulazia, Elene Goikoetxea, Jare Agea, Idurre Arriola, Leandro Esnaola eta Janire Elordi.

### Domekara arte egongo da zabalik Etxegina taldearen 100. urteurreneko erakusketa



Santa eskeko Etxegina taldeak 100 urte bete ditu, eta horren harira, argazki erakusketa antolatu dute. Kultur Etxean jarri dituzte ikusgai 100 urteotako ibilbidea laburbiltzen duten argazkiak, eta horrez gain, santa eskeko elementu historikoak ere ikus daitezke. Liburua ere kaleratu dute, eta nahi duenak erakusketan bertan erosi dezake, 25 euroan. 18:30etik 20:30era egongo da zabalik gaur eta asteburuan goizez 12:00etatik 14:00etara eta 18:30etik 20:30era.

## Herriko aisialdi hezitzailea berpizteko prozesua hasi dute Mendaron, Txatxilipurdik gidatuta

Mendaroko Udalari estrategikoa iruditzen zaio herrian bertan aisialdi hezitzailean lan egingo duen eragile bat izatea, mendaroarren artean beren herriarekiko atxikimendua sustatzeko eta, bide batez, Udalaren aisialdiko ekipamenduak herriko eragile batek kudeatzeko. Horretarako, *Herriko haur eta nerabeekin aisialdian lan egin nahi? Berpiztuko dugu Trixixapo?* topaketa antolatu du herriko gazteentzat udaletxeko Arno aretoan. Hiru saio aurrekusi dituzte: otsailaren 10ean, 17an eta 24an, 17:30etik 20:00etara, eta Txatxilipurdi elkarteok gidatuko dituzte saiook. Oinherri Herri Hezitzaileen Sareko kide da Mendaro eta marko horren baitan hasi dute prozesua.

Prozesuak hiru fase izango dituela jakinarazi dute eta une honetan bigarren fasean daudela. Lehenengo fasearen helburua herrian egon daitezkeen helduleku posibleek (kultur elkarte, guraso elkarte, gazte hezitzaile posibleak...) erronkaren aurrean kokatu eta duten jarrera aztertzea izan da, aurrera begira lurzoru komun

eta egonkor bat izateko. Fase honetan hiru bilera izan dira: lehenengoan, udal ordezkari eta teknikarien artekoan, proposamena azaldu, kontrastatu eta formula ezberdinak proposatu zituzten; bigarrenean, gazte hezitzaile eta teknikarien artekoan, Aisialdi Hezitzailearen kokapena egin, eta aukerak eta erronka aurkeztu zituzten; hirugarrenean, azkenik, egitasmoa juridikoki kokatzeko aukerak aztertu zituzten.

Bigarren fasean, haur eta nerabeekin batera arituko diren hezitzaileek hiruna orduko hiru formazio eta hausnarketa saio bat egitea dute jasota, haiek ahalduz. Saio horietan aisialdi hezitzaileaz, eta aisialdi tipo horrek herri hezitzaileen filosofian duen garrantziaz eta Mendaron egin daitekeenaz hausnartuko dute. Hirugarren eta azken fasean, berriz, aisialdiko elkarte edo eragile berriko kideei, Mendaroko aisialdiko zerbitzu finkoak kudeatzeko garatu beharreko proiektuan bidelaguntza eta aholkularitza eskainiko diete Txatxilipurdikoek.

### Marina Lledo konpositore brasildarrak eta Reinier Elizalde 'El Negrón' kontrabaxu jotzaile kubatarrak kontzertua emango dute Mendaron, hilaren 14an



Marina Lledo abeslari hispaniar brasildarrak eta Reinier Elizalde *El Negrón* kontrabaxu jotzaile kubatarrak kontzertua emango dute Mendaron otsailaren 14an, 21:30ean, Jazz Eguna zikloaren barruan.

Marina Lledo abeslari eta konpositoreak oso gazterik hasi zuen bere ibilbidea, bere aita Arturo Lledo gitarra-jotzaile brasildarrarekin batera. Bi disko argitaratu ditu, *Noche Rara* (2015) eta *Estando Sola* (2018), biak nazioartean sarituak. 2021ean, Ivan Lewis *Melon* pianista kubatarraren *Voyager* diskoaren grabazioan parte hartu zuen [latin-jazz disko onenaren Grammy Latinoa jaso zuen diskoak]. Reinier Elizalde musikari erreferentea da jazz garaikidearen nazioarteko eszenan. Kuban Irakere jazz taldeko kide izan zen Chucho Valdes maisuaren zuzendaritzapean; Maraca y otra visión taldeko kide ere izan zen, Orlando Valle txirulari ezagunarekin, eta Pupy y y los que Son, César taldeko kide ere bai Pupy Pedroso pianista eta konpositorearekin.

Kontzerturako sarrerak Uztargi tabernan jarri dituzte aurrez salgai, 15 euroan, baina egunean bertan ere eskuratu ahal izango dira, kulturguneko sarreran.





## BOSKO EGUNA, AURTEN KALEAN ERE BAI

✍ Ainhoa Andonegi 📍 BARREN / Ikastetxeak

Beste urte batzuetan baino bereziagoa izan da aurten San Joan Bosko eguna. Elgoibarko Lanbide Heziketaren 125. urteurrena dela eta, Mekak eta IMHK elkarrekin ospatu zuten eguna barikuan, eta kalera atera ziren zen-troetako ikasle eta irakasleak. Maalan eta herriko kaleetan zehar egin zituzten ekintzak, eta eginkizun berritzaileen artean egun horretarako propio prestatutako ginkana izan zuten. Elgoibarko Makina Erremintaren Historia-zaleak taldeko Pedro Mari Andonegi eta Anton Bergararen laguntzarekin antolatu zuten proba eta Mekatronika zikloko bigarren mailako ikasle taldeak irabazi zuen. Horrez gain, urteroko ekintzak izan zituzten: futbolen txapelketa, ping-pong, sokatira... IES Elgoibar BH institutuan ere ospatu zuten Bosko Eguna, eta atletismo probak, patata tortilla lehiaketa, antzerkiak... egin zituzten. Ikasleen patroia eguna giro ezin hobean ospatu zuten.









## Apirilaren 6an jokatu da Jose Gurrutxaga krosa eta zabalik dago izena emateko epea

Elgoibar Ikastolatik jakinarazi dute apirilaren 6an jokatu dela aurtengo Jose Gurrutxaga krosa, 30. edizioa izango dena. Eskola-umeek ikastetxeetan bertan eman dezakete parte hartzeko izena, baina 16 urtez gorakoek *elgoibarikastola.eus* webgunean eman behar dute izena, eta horretarako otsailaren 13ra arteko epea dute. Antolatzaileek ohartarazi dute aurten ez dela egongo egunean bertan izena ematerik, eta krosean izena emandakoek bakarrik parte hartu ahal izango dutela. Elgoibarko eta Mendaroko ia 800 lagunek parte hartu zuten iazkoan.



### Mutrikuko Olatz harana ezagutzeko irteera antolatu dute otsailaren 16rako



Umeentzako eta familientzako mendi irteera antolatu dute Morkaikok eta herriko ikastetxeek otsailaren 16rako. Urtarrilean egitekoak ziren irteera hau, baina bertan behera laga behar izan zuten haizeagatik alerta laranja ezarri zutelako. Eguraldiak lagatzen badie, Olatz harana ezagutzera joango dira. Mutrikuko hego-mendebaldean dagoen baserri-auzoa izateaz gainera, Olatz Euskal Kostaldeko Geoparkeko polje bitxia da, bailara itxia alegia, non bertako urak kareharritzko haitzuloe-tan barrena desagertzen diren. Haran ezkutu bat modukoa da, piramide-formako mendiz inguratua dagoen sakonunea. Olatzeko geo-ibilbidea (PR-Gi

47) baserriz eta kareharriz betetako paisaia honetan barneratzen da eta horixe da irteera honetan parte hartuko dutenek jarraituko duten ibilbidea. Erraz egin daitekeen ibilbide zirkularra da: 6,5 kilometro, bi ordutan. Isidro Deunaren eliza ondoan hasi eta amaitzen den ibilbidean zehar, bertako geologia berezitasunak ezagutzeko aukera dago gainera, panel ezberdinei esker, baita hainbat elementu etnografiko ezagutzeko aukera ere: leizeak, karobiak, estelak, mitologia multzoak...

Joan nahi dutenek Mintxetako aparkalekura joan beharko dira domeka goizean, handik irtengo baitira autoetan 09:30ean.

## Euskal Ligatik kanpo gelditu da Cimde, hirutik bi partida irabazi arren



**B**ergaran jokatu zuten promozio fasean lan ona egin arren, Euskal Ligatik kanpo gelditu da Cimde Elgoibar eskubaloitako taldea. Gipuzkoako, Bizkaiko eta Arabako liga txapelketetan lehen postuetan sailkatu diren taldeak eta Euskal Ligan jokatzeari eutsi nahi dioten taldeak lehiatzen dira Bergaran jokatu zutenaren moduko promozio fasean. Cimde Elgoibar zen Euskal Ligako ordezkaria kasu honetan, eta mailari eusteko lehen postuan sailkatu behar zuen Sanloko jubenil emakumeen taldeak. Promozio

fasean jokatu zuten hiru partidetatik bi irabazi zituzten elgoibartarrek; 37-42 Ereintzaren aurka eta 24-27 Bergararen aurka baina galdu egin zuten Ermuko Errotaberri taldearen aurkako partida: 20-39ko emaitzarekin. Ermuarrek jokatu zuten hiru partidak irabazi zituzten Bergaran, eta eurek hartuko dute Cimderen lekua Euskal Ligan. Beste hiru taldeak lurraldeetako ligetan lehiatuko dira datorren denboraldian. Denboraldia amaitu arte Federazio garaikurra A txapelketan lehiatuko da Cimde. (📷 Roberto Sanchez)

### Tenis eta padel pisten erabiltzaileek ez dute argia ordaindu beharko aurrerantzean Elgoibarren

Argia erabiltzeagatik 2,50 euro ordaintzen zuten orain arte padel eta tenis pistetako erabiltzaileek, izan udal kirol patronatuko abonatu edo ez. Patronatutik jakinarazi dutenez, otsailaren 1ean laga zioten argia kobratzeari. Argia erabiltzeagatik ordaintzen ziren kirol-instalazio bakarrak ziren teniseko eta padeleko pistak, eta argiaren kostua kentzea "bidezkoa eta koherentea" iruditu zaie gainerako instalazioen erabilerarekin parekatzeko. Patronatura abonatu gabekoek, orain arte moduan, 5,50 euro ordaindu beharko dituzte, orduko eta pertsonako, pistak erabiltzeko.





## LANA

## Eskaerak

Umeak edo adinekoak zainduko nituzke. Erizain titulua eta titulu soziosanitarioa ditut. **643 097 648**

Adinekoak zainduko nituzke. Berehala hasteko prest nago. **643 097 599**

Arratsaldeetan eta asteburuetan lan egingo nuke. Adinekoak zaintzen esperientzia handia. Titulu soziosanitarioa dut. **631 020 169**

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. Esperientzia. Etxeko langile moduan lan egiteko prest nago. **602 61 35 94**

Adinekoak edo umeak zainduz egingo nuke lan. Etxeko garbiketaria lanak ere egiten ditut. Etxeko langile moduan lan egiteko prest. Esperientzia daukat. **611 215 176**

Adinekoak zein umeak zaintzen egingo nuke lan. Etxeko lanak ere egiten ditut. **643 246 389**

Adinekoak zaintzeko edo garbiketaria lanak egiteko prest nago. Esperientzia daukat. **632 915 336**

Adinekoak zainduko nituzke. Etxeko langile moduan edo asteburuetan. Esperientzia eta titulu soziosanitarioa ditut. **642 852 854**

Adinekoak zaintzen egingo nuke lan, etxean nahiz ospitalean. Titulu soziosanitario daukat eta urte askotako esperientzia. **660 511 781 / 943 742 330**

Adinekoak zaintzen egingo nuke lan, etxeko langile moduan zein orduka. Urteetako esperientzia. Garbiketaria lanak ere egiten ditut. **602 169 509**

Adinekoak zaintzen egingo nuke lan, etxeko langile moduan zein orduka. Urteetako esperientzia. Garbiketaria lanak ere egiten ditut. **641 12 17 95**

Adinekoak zaintzen egingo nuke lan, etxeko langile moduan edo orduka. Urteetako esperientzia. Etxeetan garbiketaria lanak egiteko ere prest nengoke. **641 912 759**

Lanerako prest nago. Margolari lanetan eta adinekoak zaintzen urte askotako esperientzia daukat. Titulu soziosanitarioa daukat. **603 727 067**

## LOKALAK

Lokal industrialia alokatzen da Eruanarabide 20 behean. 10 autorentzako aparkalekua du kanpoaldean. **670 406 748**

## BESTELAKOAK


Oraiko pub zeneko baso-azpiko bat nahiko nuke. **688 624 326**



**TEMPUR ORIGINAL BURKOA OPARI,  
TEMPUR FORM  
KOLTZOI BAT EROSTEAGATIK.  
(IKUSI BALDINTZAK)\***


San Roke kalea, 20  
Elgoibar

**943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com**



**TEMPUR**

**TEMPUR FORM KOLTZOIA**




Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas  
Euzkoako Enkainatzaile Administrazioaren Erakunde Komunitarioa

**Gure komunitateak enpresa bat kontratatu du eraikinaren faxtada berritzeko. Lanak bukatu dituzte, baina oraindik zenbait gairu ez zaizkio ordaindu enpresa eraikitzaileari, jabe batzuek oraindik ez dituztelako ordaindu obra-kuota guztiak. Batzuek jakinarazi dute ez dutela beste ordainketarik egingo. Jakin nahi nuke zer egin dezakegun kuota guztiak ordainduta ditugun etxe jabeok.**

Alderdi hauek hartu behar ditugu kontuan: Jabekideen Komunitateak hartuko ditu bere gain hirugarrenetako dituen zorrak, bere alde dituen fondo eta kreditu guztiak. Modu subsidiarioan, eta kasuan kasuko jabeari ordainketarako deia egin ondoren, hartzekodunak jo dezake kasuan kasuko prozesuan alderdi izan den jabearen aurka, ordaindu gabeko zenbatekoan dagokion kuotaren arabera. Jabeek ordainketari uko egin ahalko diote, egiaztatzen badute komunitateko ordainketa guztiak egunean dituela.

**Ondorioa: enpresa eraikitzaileak komunitatearen aurka jo ahal izango du ordaindu gabeko zenbatekoa erreklamatzeko. Era subsidiarioan zuzendu ahal izango da ordaindu gabeko kuotaren zenbatekoa zor duen jabe bakoitzaren aurka, jabe horrek komunitateari zorra ordaintzeko betebeharra betetzea eragozten badio. Enpresak komunitatearekin kuotaren ordainketa egunean duen jaberaren baten aurka jotzen badu, jabe horrek ordaintzeari uko egin ahalko dio.**



**ROSA Mª PINTADO**


*Etxaldean Administrazioako-Gratu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749*

**660 969 679**  
**rosapf@telefonica.net**




**AHOLKULARI KOLABORATZAILEA**  
San Bartolome, 2




Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENEKO bulegora, [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) e-postara edo  **688 655 658** bidalita.



Zorionak, **Amets**, urtarriaren 30ean 11 urte egin zenituelako. Besarkada handi-handi bat familiakoekin partez.



Zorionak, **Jakes**, asteazkenean 10 urte bete zenituelako. Mutil jator eta kirolaria izaten jarraitu. Muxuak, familia guztiaren partez.



Handitzen handitzen... 11 urte potolo! Zorionak, **Lur!** Segi beti bezain alai, txintxo eta maitagarri.



Zorionak, **Nora!** Atzo primeran ospatu genituen zure 5 urteak! Muxu bat.



Zorionak etxeko bi bizipozei! Muxu pila bat etxeko guztion partez. Segi horrela.



Zorionak, **printzesa**, San Blas egunean 5 urte egin zenituelako. Muxu potolo bat etxekoekin eta bereziki, anaia Igor, eta lehengusu Mikel eta Nereren partez.

Erretratu bakarrekogurra: 4,50€.  
Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€.  
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK  
Erretratu bakarrekogurra: 3,50€.  
Argazki bikoitza: 6€ Hirukoitza: 8€.  
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.



## KONTSULTATEGIA

### Zure hortzei buruzko hiru bitxikeria

Hortzen esmaltea giza gorputzeko sustantziarik gogorra da. Hezurak oso erresistenteak diren arren, hortzetako esmaltea gogorra da. Batez ere hidroxiapatitaz egin dago esmaltea, oso mineral gogorrez beraz.

Bazenekien hortzak bakarrik direla, hatz-markak bezala? Ez dago hortz berdinak dituen bi pertsonarik; bikiak diren pertsonen ere ezberdinak izaten dituzte. Horregatik, auzitegiko ikerketa batzuetan, hortzak erabiltzen dira pertsona identifikatzeko.

Bazenekien ezin dugula gure hortzen herena ikusi? Hortz-egituraren % 30 inguru hortzen azpian ezkutatuta dago. Horregatik, funtsezkoa da gingibaren osasuna zaintzea, hortzak indartsu eta beren tokian mantentzeko.



**ALDAZ HORTZ KLINIKA**  
San Bartolome, 22 - 20870 Elgoibar  
[iyd@dentalaldaz.com](mailto:iyd@dentalaldaz.com)  
**943 366 377**



## 7 BARIKUA

**18:30** Erakusketa: 'Santa Eskeko Etxegina taldearen 100. urteurrena'. Kultur Etxeko erakusketa gelan.

**19:00** Antzerkia: 'Sólo hasta mañana'. Herriko Antzokian.

## 8 ZAPATUA

**08:30** Santa eskea, Mendaron. Herriko Enparantzan batuko dira, eta Mendaroko kale eta baserriak koplaturatu dituzte.

## 9 DOMEKA

**10:00** Dultzaineroen diana. Kalegoen plazan hasita, kaleetan zehar.

**12:30** Udala Musika Bandaren kontzertua. Herriko Antzokian.

1. *iChurumbelerías!* (E. Cebrián).
2. *La corte del faraón.* (V. Lleó).
3. *Don Gil de Alcalá.* (M. Penella).
4. *Cantos Vascos.* (Pedro de Alberdi).
5. *Bolero.* (M. Ravel).
6. *Fiesta Tropicale.* (Arr. V. López).

## 10 ASTELEHENA

**17:30** 'Herriko haur eta nera-beekin aisialdian lan egin nahi? Berzpituko dugu Trixixapo?' topaketa Mendaroko udaletxe-ko Arno aretoan.

## 11 MARTITZENA

**16:30** Aholkularitza: Etxeko zaintza kontratazioa. Merlin Medinarekin, Lilan. Bakarkako saioak, doan. Beharrezkoa da aurretik hitzordua hartzea: 688 640 983  
*elgoibarzaintza@gmail.com*

## 12 EGUAZTENA

**18:30** Hitzaldia: 'Maitatu'. Haizeak antolatuta, Loredi Salegik gidatuko du saioa. Lilan.

## 13 EGUENA

**18:00** Hitzaldia: 'Aulki hutsak'. Iñaki Peña medikua-ekin, Mendaroko udalbatza aretoan.

**19:00** Hausnarketa saioa: Isiltasunaren eskola. Kultur Etxeko Sotoan, Jose Cruz Igartuarekin.

## 14 BARIKUA

**16:30** Odol ateratzeak. El-goibarko Jubilatuen Biltokian. Txanda hartzeko: gotatanta.eus edo 623 328 408 telefonoan whatsapp bidez, asteazketik aurrera.

**17:00 - 19:00** Antzerkia: 'Ostirala iritsi da'. Pirritx, Porrortx eta Marimotots pailazoan emanaldia. Herriko Antzokian.

**18:30** Argazki erakusketa. Ongarri argazkilari taldeak Eduardo Momeñe argazkilaria-  
ren lanak jarriko ditu ikusgai Kultur Etxeko erakusketa gelan.

**21:30** Kontzertua: Reinier Elizalde eta Marina Lledo. Mendaroko San Agustin kultur-gunean.



### XI. URTEURRENA

## *Idoia Laka Lizaso*

2014ko otsailaren 3an hil zen, 38 urte zituela.

*Utziguzu kontatzen zer ederra den zu gogoratzea,  
utziguzu kontatzen irribarre artean,  
utziguzu kontatzen zer ederra den jakitea  
maite zaitugula zeruaren beste aldean.*



Azkoitiko eta Elgoibarko lagunak

**Zinea** Herriko Antzokian



**'Conclave'**

8 zapatua: 19:00 / 22:15

9 domeka: 19:00

10 astelehena: 21:00

**'Flow, un mundo que salvar'**

9 igandea: 16:30

**'Bird'** (Ongarri zinekluba)

12 eguaztena: 21:00



**2025eko botika ordutegiak:**

09:00-13:00 / 16:00-20:00

GUARDIAK: Egunez: 09:00-22:00

Larunbatak: 09:00-14:00 (■)

**OTSAILA**

7 BARIKUA	Garitaonandia
8 ZAPATUA	Barrenetxea
9 DOMEKA	Barrenetxea
10 ASTELEHENA	■ Fernandez
11 MARTITZENA	Yudego
12 EGUAZTENA	Oruesagasti
13 EGUENA	■ Barrenetxea
14 BARIKUA	■ Soto

2025 urte guztian, gauzez:  
Mikel Lekunberri Alberdi. Isasi, 31 (Eibar)  
943 204 230

■ Fernandez: Herriko Enparantza, 4 Garagartza (Mendaro) 943 756 142	■ Soto Rekalde, 1 (Soraluze) 943 751 638	■ Oruesagasti: Kalebarren, 9 (Soraluze) 943 751 384
--	---	--

XI. URTEURRENA

**Idoia Laka Lizaso**

2014ko otsailaren 3an hil zen, 38 urte zituela.

**Gure ondotik joan zara,  
baina betiko izango zaitugu  
gure bihotzetan**

Etxekoak







Jose Ramon Cabrera





## Jose Osoro Aramberri

*"Pitis"*

2025eko otsailaren 5ean hil zen, 85 urte zituela  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



## Mari Carmen Arakistain Makazaga

2025eko urtarrilaren 13an hil zen, 91 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

**Zure irribarrea  
inoiz itzaliko ez den argia da.**

Etxekoak



I. URTEURRENA

## Noel Rodriguez Garcia

2024ko otsailaren 5an hil zen, 47 urte zituela.

**Ez egin negarrik amaitu delako,  
egin irribarre, bizi izan dugulako.  
Gugan utzi duzun arrastoa, zure ondarea da  
bizi-bizirik jarraitzen duzu gure baitan.**

**Jendea hara eta hona dabilela diote.  
Ez da zure kasua, lagun.  
Guretzat betiereko izango zara.  
Ikaragarria da utzi duzun hutsunea,  
baina beti izango zaitugu gogoan  
zure bihotz handiagatik,  
eta baita hain zure zenituen  
poztasun eta zoramenagatik ere.  
Senide, lagun eta lankideok ez zaitugu sekula ahaztuko.  
Hartu atsedeen paradisu.**

**Goian bego.**

Etxekoak





# Elgoibar Ikastola

biharko herria eraikitzen



Aurrematrikulazioa: otsailaren 3tik 14ra

[elgoibar@elgoibarikastola.eus](mailto:elgoibar@elgoibarikastola.eus) | 943 744 441

